

Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018) **Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra**

2018ko urriaren 4an (egun osoa), 5ean (egun osoa) eta 6an (egun erdia).
Arantzazu-Gandiaga Topaketa eta Batzarretarako Zentroan (Oñatin).

Azalpena

2018-2019 urte bitartean betetzen da Euskaltzaindiaren mendeurrena. 100 urtetan zehar, Euskaltzaindiak, IKER eta JAGON sailean hainbat ekimen ondu eta mamitu ditu euskararen inguruan. Horiek gogoratuko dira mendeurrenaren egitarau zabalaren bidez. Horien artean, zer esanik ez, 2018. urtean 50 urte betetzen dira Arantzazuko 1968ko Biltzarretik. Aurretik hainbat ekarpen izan baziren ere, 1968ko Biltzarra Euskara Batuaren mugarri nagusietako bat izan da. Ordutik Euskara Batuak egin duen bidea azaldu, egungoaz gogoeta egin eta eginkizun dagoena zehaztu nahi dira Biltzar honen bidez. Azken 50 urte hauei begiratuko zaie baina aurrera begira ere jarri nahi da euskararen Akademia. Eta hori guztia aurrera eramateko ezinbestekoa da euskararen esparruan diharduten erakunde publiko, pribatu eta gizarte zabalaren iritzia eta ekarpenak jasotzea, biltzar honetan egingo den moduan.

Nori zuzendua

- Hizkuntzaren profesionalei: idazleei, kazetariei, irakasleei, itzultzaileei, ikertzaileei...
- Herri erakundeetako arduradun eta teknikariei.
- Euskararen erakundeetako arduradun eta teknikariei.
- Herritarrei, oro har.

Komunikazioak aurkezteko deialdia

- Izenburua: komunikazioaren izenburua.
- Egileak: izen eta abizenak.
- Datuak: ikerketa zentro, talde, erakunde, lanbide...
- Laburpena: gehienez 500 hitz izango dituen laburpen bat (nahi izanez gero bibliografia aipua egin daitezke laburpenean. Aipuen hitzak ez dira zenbatuko).
- Formatua: PDF eran, Times New Roman, 12.
- Harremanetarako kontaktua: helbide elektronikoa eta telefonoa.
- Arloak:
 - Euskara batuaren sorrera eta ibilbidea ikuspegi sozio-historikotik, soziolinguistikotik...
 - Euskara batuaren ezaugarri morfosintaktikoak.
 - Euskara batuaren hiztegia.
 - Euskara batuaren semantika eta pragmatika.
 - Euskara batua eta onomastika.
 - Euskara batua eta euskal dialektologia.
 - Euskara batuaren etorkizuneko erronkak hezkuntzan.
 - Euskara batuaren etorkizuneko erronkak lege eta herri-administrazioetan.
 - Euskara batuaren etorkizuneko erronkak komunikabideetan.
 - Euskara batuaren etorkizuneko erronkak ingurune digitalean.
 - Euskara batuaren etorkizuneko erronkak itzulpen gintzan eta literaturan.
 - Euskara batuaren etorkizuna lanbide munduan.

Oharrak

- Biltzarra euskaraz izango da baina komunikazioak gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ere aurkez daitezke (aldibereko interpretaritzak egongo da).
- Egile batek arlo bat baino gehiago lantzen baditu, lan bat baino gehiago aurkeztu ditzake.
- Komunikazioetarako laburpenetan zehaztuko da zein arlori dagokion komunikazio bakoitzaren edukia.
- Komunikazioen laburpena aurkezteko epea: ekainaren 1etik ekainaren 30era.
- Komunikazioen laburpenak helbide honetara bidali behar dira:
komunikazioak@euskaltzaindia.eus
- Batzorde Zientifikoak jasotako komunikazioen laburpenak aztertuko ditu eta onartutakoekin komunikazioen zerrenda osatuko du.
- Onartutako komunikazioen egileei posta elektronikoz jakinaraziko zaie, uztailaren 13a baino lehen.
- Biltzarrean aurkezpena egiteko ordutegia zein den ere irailaren 7a baino lehen jakinaraziko zaie parte hartzaileei.
- Onartutako komunikazio guztiak Biltzarrean aurkezteko tarterik ez balego, Biltzarraren argitalpenean jasoko lirarteke.

Batzorde Zientifikoa

- Burua: Andres Urrutia (euskaltzainburua - Deustuko Unibertsitatea).
- Idazkaria: Adolfo Arejita (euskaltzain osoa - Iker sailburua - Deustuko Unibertsitatea).
- Kideak:
 - Miren Azkarate (euskaltzain osoa - Euskal Herriko Unibertsitatea).
 - Jean Baptiste Coyos (euskaltzain osoa - Jagon sailburua).
 - Roberto Gonzalez de Viñaspre (euskaltzain osoa - Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea).
 - Jabier Kaltzakorta (euskaltzain osoa - Deustuko Unibertsitatea).
 - Andoni Sagarna (euskaltzain osoa).
 - Patxi Salaberri (euskaltzain osoa - Nafarroako Unibertsitate Publikoa).
 - Ana Toledo (euskaltzain osoa - Deustuko Unibertsitatea).
 - Miriam Urkia (euskaltzain osoa - UZEI).
 - Xarles Videgain (euskaltzainburuordea).
 - Patxi Zabaleta (euskaltzain osoa).
 - Mikel Zalbide (euskaltzain osoa).

Antolaketa batzordea

- Iñaki Mendizabal.
- Erramun Osa.
- Xabier Paya.
- Ibon Usarralde.
- Joseba Zabaleta.